Errenteriako Udala
Zk./ Nº 2026/7
Data /Fecha 2026/06/05
AKTA / ACTA

**Espediente zk./**Nº expediente**:** 2026IUBA0005
**Gaia/**Asunto**:** 2026/05/26 Udalbatzaren ohiko Osoko Bilkura/Sesión ordinaria de Pleno de fecha 26/05/2026

**Udalbatzak 2026ko maiatzaren 26an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2026ko maiatzaren 26ko 18:30ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU), ondorengo zinegotziak elkartu dira:

***ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU***

- Leire MAZIZIOR EGILEGOR
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Bernar LEMOS TABERNA
- Itsaso CRUZ ETXEBERRIA
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Iñaki QUERALT COIRA
- Idoia PIKABEA ALMANDOZ
- Naroa ZABALA CIA

***SocialistasVascos-Euskal Sozialistak***

- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Montserrat LUIS CANO
- Manuel QUESADA MORILLAS
- María Almudena DE LA TORRE FERNANDEZ
- José Alberto MUÑAGORRI BERDASCO
- Yosleidy Cristina FERRERA CEDEÑO

***EAJ-PNV***

- Elixabete MURUA MINDEGUIA
- Jaione FRANCO INSAUSTI
- Luis María OYARBIDE ARIZMENDI

***ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde***

**Acta de la sesión ordinaria de Pleno de la Corporacion celebrada el día 26 de mayo de 2026.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 26 de mayo de 2026, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU), las y los siguientes concejalas y concejales:

***ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU***

- Leire MAZIZIOR EGILEGOR
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Bernar LEMOS TABERNA
- Itsaso CRUZ ETXEBERRIA
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Iñaki QUERALT COIRA
- Idoia PIKABEA ALMANDOZ
- Naroa ZABALA CIA

***Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak***

- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Montserrat LUIS CANO
- Manuel QUESADA MORILLAS
- María Almudena DE LA TORRE FERNANDEZ
- José Alberto MUÑAGORRI BERDASCO
- Yosleidy Cristina FERRERA CEDEÑO

***EAJ-PNV***

- Elixabete MURUA MINDEGUIA
- Jaione FRANCO INSAUSTI
- Luis María OYARBIDE ARIZMENDI

***ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde***

ESKU27b45c83-2410-4dfc-b52a-693d2abeb989

- Yolanda MARTIN MARCOS
- Maite GARTZIA ONTIVEROS

***PP ERRENTERIA***

- Antonio José VICENTE ZUBICOA

Bertan dago, egintza fedatzeko, Mari José Sánchez Plaza, Idazkari akzidentala.

Era berean, bertan dago udal kontuhartzailea, Irune Soto Cotorro.

- Yolanda MARTIN MARCOS
- Maite GARTZIA ONTIVEROS

***PP ERRENTERIA***

- Antonio José VICENTE ZUBICOA

Asiste y da fe del Acto la Secretaria accidental Mari José Sánchez Plaza.

Igualmente asiste la interventora municipal, Irune Soto Cotorro .

**1. 2026ko apirilaren 28an ohiko bilkurari dagokion akta irakurri, eta egoki bada, onartzea (2026IUBA0004).**

Oharrik gabe onartu da.

**1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 28 de abril de 2026 (2026IUBA0004).**

Se aprueba sin observación alguna.

**2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 916tik 1305 zk.ra (biak barne), eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**2. Dar cuenta de Resoluciones de la Alcaldesa y de Concejales Delegados nºs 916 al 1305 (ambos incluidos), y de la Junta de Gobierno Local.**

El Pleno queda enterado.

**3. 2026/1255 Dekretuaren BERRI EMATEA , Tokiko Gobernu Batzordeko eskumenen zehaztapenari buruzkoa (2023ITGB0001).**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**3. DAR CUENTA del Decreto 2026/1255, relativo a la especificación de las competencias de la Junta de Gobierno Local. (2023ITGB0001).**

El Pleno queda enterado.

**4. 2026/1472. Delegatu-Dekretuaren BERRI EMATEA: 2026ko Madalenetako omenduak izendapenak. (2026KPOL0001)**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**4. DAR CUENTA del Decreto de Delegada n.º 2026/1472. : nombramiento de homenajeadas/os en Madalenas 2026. (2026KPOL0001)**

El Pleno queda enterado.

ESKU27b45c83-2410-4dfc-b52a-693d2abeb989

**5 PROPOSAMENA: "Maria Enea Gaztaño Auzoa 40 orubeko Xehetasun Azterketa". Behin-betiko onespena (2025HXET0002).**

**HIRIGINTZAKO ZINEGOTZI DELEGATUAK LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEARI EGITEN DION PROPOSAMENA**

**AURREKARIAK**

I. 2025eko apirilaren 15ean, Jose Erquicia Olaciregui arkitektoak idatzitako "**Maria Enea Gaztaño Auzoa 40 orubeko Xehetasun Azterketa**" aurkeztu zen.

II. 2004ko otsailaren 3an, Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onetsi zuen egungo Errenteriako Hiri Antolamendurako Plan Nagusia. Ondoren, 2004ko uztailaren 27an behin betiko onespena eman zitzaion plan horren Testu Bateginari.

III. Gaztaño Zaharraren Birgaitze Integraturako Plan Berezia 2005eko martxoaren 22an onartu zen behin betiko izaeraz.

IV. 2026ko otsailaren 24an, hasierako izaeraz onartu zen Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspena.

V. 2026ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak hasiera batean onartu zuen "Maria Enea Gaztaño Auzoa 40 orubeko Xehetasun Azterketa".

Erabaki horren bidez, hogei egun balioduneko epean jendaurreko informazio-aldi bat irekitzea ebatzi zen, bai eta albisteak egitea eta bidezko txostenak eskatzea ere.

VI. Dagozkion argitalpenak egin ziren: GAO (2026/04/17), DIARIO VASCO eta BERRIA aldizkariak, bai-eta udal web orrian.

VII. Alegazio epea 2026ko maiatzaren 18an amaitzen da, oraini arte ez delarik alegaziorik aurkeztu.

**5. PROPUESTA: Aprobación definitiva del "Estudio de Detalle del Ámbito Maria Enea -Barrio Gaztaño 40" (2025HXET0002).**

**PROPUESTA DEL CONCEJAL DELEGADO DE URBANISMO A LA COMISIÓN INFORMATIVA DE TERRITORIO**

**ANTECEDENTES**

I. Con fecha 15 de abril de 2025 se presentó el "**Estudio de Detalle del Ámbito Maria Enea - Barrio Gaztaño 40**", redactado por el arquitecto Jose Erquicia Olaciregui.

II. El vigente Plan General de Ordenación Urbana de Errenteria fue aprobado definitivamente por el Consejo de Diputados de la Diputación Foral el 3 de febrero de 2004. Posteriormente su Texto Refundido fue aprobado definitivamente el 27 de julio de 2004.

III. El Plan Especial de Rehabilitación Integrada de Gaztaño Zaharra fue aprobado definitivamente el día 22 de marzo de 2005.

IV. Con fecha 24 de febrero de 2026 se aprobó inicialmente la revisión del Plan General de Ordenación Urbana de Errentería.

V. En sesión celebrada el 16 de marzo de 2026, la Junta de Gobierno Local aprobó inicialmente el "Estudio de Detalle del Ámbito Maria Enea -Barrio Gaztaño 40".

Mediante el mismo acuerdo se resolvió proceder a la apertura de un periodo de información pública por el plazo de veinte días hábiles, así como a efectuar las notificaciones y solicitar los informes pertinentes.

VI. Se efectuaron las publicaciones correspondientes: BOG (17/04/2026), los diarios DIARIO VASCO y BERRIA, así como en la página web municipal.

VII. El plazo de alegaciones finaliza el 18 de mayo de 2026, sin que hasta la fecha se hayan presentado

ESKU27b45c83-2410-4dfc-b52a-693d2abeb989

alegaciones.

**LEGEDI APLIKAGARRIA**

2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.

Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO).

.IErrenteriako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia (HHBPB).

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena.

128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena.

**LEGISLACIÓN APLICABLE**

Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo (LSU).

El Plan General de Ordenación Urbana de Errenteria (PGOU).

Modificación Puntual y parcial del Plan Especial de Ordenación Urbana del Área 16 Altzate.

Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional.

**GOGOETA JURIDIKOAK**

**LEHENENGOA: EDUKI MATERIALARI DAGOKIONEZ**

Dokumentuaren hasierako onespenaren akordioan jasotako gogoetak errepikatzen dira.

**BIGARRENA: PROZEDURARI DAGOKIONEZ**

Behin betiko onarpena emateko epea hiru hilabetekoa izango da, hasierako onespena ematen zaionetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada, xehetasun-azterketa alderdi batek eskatuta aurkeztu bada, interesdunak ezetsitzat jo ahal izango du.

Ildo horretan, legez ezarritako ebazpen-epea betetze aldera, eta alegazioak aurkezteko epea p hau sinatzean oraindik amaitu ez bada ere, orain arte alegaziorik aurkeztu ez dela ikusita, eta xehetasun-azterlana behin betiko onartzeko proposamenari buruzko irizpena emango duen informazio-batzordea egiteko aurreikusitako datan epea amaituta egongo

**CONSIDERACIONES JURÍDICAS**

**PRIMERO: EN CUANTO AL CONTENIDO MATERIAL**

Se reproducen las consideraciones del acuerdo relativo a la aprobación inicial del documento.

**SEGUNDO: EN CUANTO AL PROCEDIMIENTO**

El plazo para la citada aprobación definitiva es tres meses desde su aprobación inicial. Transcurrido este plazo sin comunicar la pertinente resolución, cuando dicho estudio de detalle haya sido presentado a instancia de parte, el interesado podrá entender desestimada su petición.

En este sentido, en aras a dar cumplimiento al plazo de resolución legalmente establecido, y si bien el plazo de alegaciones aun no ha finalizado a la firma de la presente propuesta, a la vista de que hasta la fecha no se ha presentado ninguna alegación y que a la fecha prevista de celebración de la comisión informativa que dictaminará la propuesta de

ESKU27b45c83-2410-4dfc-b52a-693d2abeb989

denez, jarraitutako izapidetzearen ondoren eta betiere alegaziorik ez badago, eta LHLren 98. artikuluaren arabera, behin betiko onartzeko erabakia hartu ahalko da.

aprobación definitiva del Estudio de Detalle habrá concluido docho plazo, tras la tramitación seguida y siempre que no se produzcan alegaciones, y conforme al artículo 98 LSU corresponderá adoptar el acuerdo de aprobación definitiva.

Jendaurreko informazio-aldian ez da iradokizunik edo alegaziorik jaso ZU! herritarrentzako arreta-zerbitzuak emandako ziurtagiriaren arabera ziurtatuko da.

El certificado emitido por el servicio de atención ciudadana ZU! certificará, en su caso, que durante el período de información pública no se ha recibido escrito de sugerencia o alegación alguna.

**ESKUDUNTZARI DAGOKIONEZ**

TAOL 22.2.c) artikuluaren arabera, udalbatzaren osoko bilkurari dagokio prozedura hau behin betiko onartzea.

Azken hori hartzeko quoruma gehiengo sinplekoa izango da (TAOL, 47.1 art.).

Ikusirik Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 98. artikulua, Hirigintzako zinegotzi delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta Hirigintzakol aholkuari juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna,

**EN CUANTO A LA COMPETENCIA**

De conformidad con el artículo 22.2.c) LBRL la aprobación definitiva de este procedimiento corresponde al Pleno de la Corporación.

El quórum para la adopción de este último será el de la mayoria simple (art.47.1 LBRL).

Visto lo dispuesto en el artículo 98 de la Ley 2/2006 de suelo y urbanismo del País Vasco, la propuesta del Concejal Delegado de Urbanismo y la conformidad dada por el asesor jurídico de Urbanismo municipal a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente

Bozketa egin aurretik, PP Errenteria udal taldeko zinegotziak, aipatutako gaiari buruz bere alderdiak duen jarrera azaldu du.

Antes de proceder con la votación, el concejal del grupo municipal PP Errenteria expone la postura de su partido con respecto al tema tratado.

Jarraian, bozketa egin da,

A continuación, se procede con la votación,

Udalbatzak, aldeko 14 botoren gehiengoarekin (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU, EAJ-PNV, ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde) eta 7 abstentziorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak eta PP ERRENTERIA),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 14 votos a favor (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU, EAJ-PNV, ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde) y 7 abstenciones (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak y PP ERRENTERIA),

**ERABAKI DU**

**LEHENENGOA**: 2025eko apirilaren 15ean aurkeztutako eta Jose Erquicia Olaciregui arkitektoak idatzitako “Maria Enea Gaztaño Auzoa 40 orubeko Xehetasun Azterketa” **behin betikoz onartzea**.

**ACUERDA**

**PRIMERO: Aprobar definitivamente** el “Estudio de Detalle del Ámbito Maria Enea -Barrio Gaztaño 40”, presentado con fecha 15 de abril de 2025 y redactado por el arquitecto José Erquicia Olaciregui.

ESKU27b45c83-2410-4dfc-b52a-693d2abeb989

**BIGARRENA: BIDALTZEA** Xehetasun-azterketa honen ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiari, Erregistroko gordailuan gorde dezan.

**HIRUGARRENA: ARGITARATZEA** erabaki hau bere osotasunean, eta Xehetasun Azterketaren araudiarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Bertan adierazi beharko da Aldundiko erregistroan ale bat jasota geratu dela.

**LAUGARRENA: JAKINARAZTEA** erabaki hau Errentak eta Ordainerazpenak departamentuari.

**BOSGARRENA: JAKINARAZTEA** erabaki hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Tokiko Zerga Zerbitzuko Katastroko Atalera.

**SEIGARRENA:** Honako erabakia **ARGITARATZEA** Udalaren web-orrian (www.errenteria.eus).

**ZAZPIGARRENA**.- Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 27.1 artikuluaren arabera, berrestea lurjabe edo sustatzaileak eremuan ematen den eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzari dagokion %15aren ondoriozko kopurua, 12.300 eurotan kalkulatu dena, eta eraikitzeko baimenaren jakinarazpena jasotzen denetik gehienezko 15 egun balioduneko epean ordaindu beharko dena.

Hau da Udalbatzari informatu behar diodana, dagozkion ondorioak izan ditzan

**SEGUNDO: REMITIR** un ejemplar del presente Estudio de Detalle a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro.

**TERCERO: PUBLICAR,** el presente acuerdo íntegramente, junto con la normativa del Estudio de Detalle, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, haciendo mención expresa de haberse producido el depósito en el registro de Diputación.

**CUARTO: NOTIFICAR** el presente acuerdo al Departamento de Rentas y Exacciones.

**QUINTO: NOTIFICAR** el presente acuerdo a la Sección de Catastro del Servicio de Tributos Locales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**SEXTO**: **PUBLICAR** el presente acuerdo en la página web del Ayuntamiento (www.errenteria.eus).

**SÉPTIMO**.- De conformidad con el artículo 27.1 de la Ley 2/2006, del Suelo y Urbanismo, ratificar el importe correspondiente al 15% del incremento de la edificabilidad ponderada, calculado en 12.300 €, que el propietario o promotor de la actuación deberá abonar en el plazo máximo de 15 días hábiles contados desde la notificación del otorgamiento de la correspondiente licencia de edificación en la parcela.

Lo que se informa a la Corporación a los efectos oportunos.

ESKU27b45c83-2410-4dfc-b52a-693d2abeb989

**6. PROPOSAMENA: "ESNABIDEko B-1 partzelako 32. Sektorearen Xehetasun Azterketa". Behin-betiko onespena (2026HXET0001).**

**HIRIGINTZAKO ZINEGOTZI DELEGATUAK OSOKO BILKURARI EGITEN DION PROPOSAMENA**

**AURREKARIAK**

**I.** 2026ko otsailaren 20an, Mikel Ochoa Ayerdi arkitektoak idatzitako "**ESNABIDEko B-1 partzelako**

**6. PROPUESTA: Aprobación definitiva del "Estudio de Detalle de la parcela B-1 del Sector 32, ESNABIDE" (2026HXET0001).**

**PROPUESTA DEL CONCEJAL DELEGADO DE URBANISMO AL PLENO**

**ANTECEDENTES**

I. Con fecha 20 de febrero de 2026 se presentó el "**Estudio de Detalle de la parcela B-1 del Sector**

**32. Sektorearen Xehetasun Azterketa**" aurkeztu zen.

**32, ESNABIDE**", redactado por el arquitecto Mikel Ochoa Ayerdi.

II. 2004ko otsailaren 3an, Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onetsi zuen egungo Errenteriako Hiri Antolamendurako Plan Nagusia. Ondoren, 2004ko uztailaren 27an behin betiko onespena eman zitzaion plan horren Testu Bateginari.

II. El vigente Plan General de Ordenación Urbana de Errenteria fue aprobado definitivamente por el Consejo de Diputados de la Diputación Foral el 3 de febrero de 2004. Posteriormente su Texto Refundido fue aprobado definitivamente el 27 de julio de 2004.

III. Udalbatzak 2006ko otsailaren 10an eginiko saioan eman zion behin betiko onespena ESNABIDE 32. SEKTOREKO Plan Partzialari.

III. El Plan Parcial del Sector 32: ESNABIDE, fue aprobado definitivamente por el Pleno de la Corporación en sesión de fecha 10 de febrero de 2006.

IV. Udalbatzak 2020ko uztailaren 20an eginiko saioan behin betikoz onartu zuen A-1, B-1 y B-2 DEL SECTOR 32: ESNABIDE partzelen xehetasun azterlana.

IV. EL Estudio de Detalle de las parcelas A-1, B-1 y B-2 DEL SECTOR 32: ESNABIDE, fue aprobado definitivamente por el Pleno de la Corporación en sesión de fecha 20 de julio de 2020.

V. 2026ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak hasiera batean onartu zuen "ESNABIDEko B-1 partzelako 32. Sektorearen Xehetasun Azterketa".

V. En sesión celebrada el 16 de marzo de 2026, la Junta de Gobierno Local aprobó inicialmente el "Estudio de Detalle de la parcela B-1 del Sector 32, ESNABIDE".

Erabaki horren bidez, hogei egun balioduneko epean jendaurreko informazio-aldi bat irekitzea ebatzi zen, bai eta albisteak egitea eta bidezko txostenak eskatzea ere.

Mediante el mismo acuerdo se resolvió proceder a la apertura de un periodo de información pública por el plazo de veinte días hábiles, así como a efectuar las notificaciones y solicitar los informes pertinentes.

VI. Dagozkion argitalpenak egin ziren: GAO (2026/04/17), DIARIO VASCO eta BERRIA aldizkariak, bai-eta udal web orrian.

VI. Se efectuaron las publicaciones correspondientes: BOG (17/04/2026), los diarios DIARIO VASCO y BERRIA, así como en la página web municipal.

VII. Alegazio epea 2026ko maiatzaren 18an amaitzen da, orain arte ez delarik alegaziorik aurkeztu.

VII. El plazo de alegaciones finaliza el 18 de mayo de 2026, sin que hasta la fecha se hayan presentado alegaciones.

## LEGEDI APLIKAGARRIA

## LEGISLACIÓN APLICABLE

2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.

Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo (LSU).

Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO).

El Plan General de Ordenación Urbana de Errenteria (PGOU).

Errenteriako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia (HHBPB).

Modificación Puntual y parcial del Plan Especial de Ordenación Urbana del Área 16 Altzate.

ESKU27b45c83-2410-4dfc-b52a-693d2abeb989

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena.

128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena.

Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional.

## GOGOETA JURIDIKOAK

### LEHENENGOA: EDUKI MATERIALARI DAGOKIONEZ

Dokumentuaren hasierako onespenaren harira egindako txosten juridikoko gogoetak errepikatzen dira.

### BIGARRENA: PROZEDURARI DAGOKIONEZ

Behin betiko onarpena emateko epea hiru hilabetekoa izango da, hasierako onespena ematen zaionetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada, xehetasun-azterketa alderdi batek eskatuta aurkeztu bada, interesdunak ezetsitzat jo ahal izango du.

Ildo horretan, legez ezarritako ebazpen-epea betetze aldera, eta alegazioak aurkezteko epea txosten hau sinatzean oraindik amaitu ez bada ere, orain arte alegaziorik aurkeztu ez dela ikusita, eta xehetasun-azterlana behin betiko onartzeko proposamenari buruzko irizpena emango duen informazio-batzordea egiteko aurreikusitako datan epea amaituta egongo denez, jarraitutako izapidetzearen ondoren eta betiere alegaziorik ez badago, eta LHLren 98. artikuluaren arabera, behin betiko onartzeko erabakia hartu ahalko da.

## CONSIDERACIONES JURÍDICAS

### PRIMERO: EN CUANTO AL CONTENIDO MATERIAL

Se reproducen las consideraciones del informe jurídico emitido con ocasión de la aprobación inicial del documento.

### SEGUNDO: EN CUANTO AL PROCEDIMIENTO

El plazo para la citada aprobación definitiva es tres meses desde su aprobación inicial. Transcurrido este plazo sin comunicar la pertinente resolución, cuando dicho estudio de detalle haya sido presentado a instancia de parte, el interesado podrá entender desestimada su petición.

En este sentido, en aras a dar cumplimiento al plazo de resolución legalmente establecido, y si bien el plazo de alegaciones aun no ha finalizado a la firma del presente informe, a la vista de que hasta la fecha no se ha presentado ninguna alegación y que a la fecha prevista de celebración de la comisión informativa que dictaminará la propuesta de aprobación definitiva del Estudio de Detalle habrá concluido docho plazo, tras la tramitación seguida y siempre que no se produzcan alegaciones, y conforme al artículo 98 LSU corresponderá adoptar el acuerdo de aprobación definitiva.

ESKU27b45c83-2410-4dfc-b52a-693d2abeb989

Jendaurreko informazio-aldian ez da iradokizunik edo alegaziorik jaso ZU! herritarrentzako arreta-zerbitzuak emandako ziurtagiriaren arabera ziurtatuko da.

El certificado emitido por el servicio de atención ciudadana ZU! certificará, en su caso, que durante el período de información pública no se ha recibido escrito de sugerencia o alegación alguna.

**ESKUDUNTZARI DAGOKIONEZ**

**EN CUANTO A LA COMPETENCIA**

TAOL 22.2.c) artikuluaren arabera, udalbatzaren osoko bilkurari dagokio prozedura hau behin betiko onartzea.

De conformidad con el artículo 22.2.c) LBRL la aprobación definitiva de este procedimiento corresponde al Pleno de la Corporación.

Azken hori hartzeko quoruma gehiengo sinplekoa izango da (TAOL, 47.1 art.).

El quórum para la adopción de este último será el de la mayoria simple (art.47.1 LBRL).

Ikusirik Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 98. artikulua, Hirigintzako zinegotzi delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta Hirigintzakol aholkuari juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna, Lurralde Batzordeak aldeko irizpena eman dio,

Visto lo dispuesto en el artículo 98 de la Ley 2/2006 de suelo y urbanismo del País Vasco, la propuesta del Concejal Delegado de Urbanismo y la conformidad dada por el asesor jurídico de Urbanismo municipal a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente, dictaminada favorablemente por la Comisión del Territorio,

Bozketa egin aurretik, PP Errenteria udal taldeko zinegotziak, aipatutako gaiari buruz bere alderdiak duen jarrera azaldu du.

Antes de proceder con la votación, el concejal del grupo municipal PP Errenteria expone la postura de su partido con respecto al tema tratado.

Jarraian, bozketa egin da,

A continuación, se procede con la votación,

Udalbatzak, aldeko 14 botoren gehiengoarekin (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU, EAJ-PNV, ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde) eta 7 abstentziorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak eta PP ERRENTERIA),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 14 votos a favor (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU, EAJ-PNV, ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde) y 7 abstenciones (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak y PP ERRENTERIA),

**ERABAKI DU**

**ACUERDA**

**LEHENGOA**: 2026ko otsailaren 20an BRITAC PROYECTOS, S.L.k aurkeztutako eta Mikel Ochoa Ayerdi arkitektoak idatzitako “**ESNABIDEko B-1 partzelako 32. Sektorearen Xehetasun Azterketa**” **behin betikoz onartzea**.

**PRIMERO: Aprobar definitivamente** el “**Estudio de Detalle de la parcela B-1 del Sector 32, ESNABIDE**”, presentado el por BRITAC PROYECTOS SL con fecha 20 de febrero de 2026 y redactado por el arquitecto Mikel Ochoa Ayerdi.

**BIGARRENA: BIDALTZEA** Xehetasun-azterketa

**SEGUNDO: REMITIR** un ejemplar del presente

ESKU27b45c83-2410-4dfc-b52a-693d2abeb989

honen ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiari, Erregistroko gordailuan gorde dezan.

Estudio de Detalle a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro.

**HIRUGARRENA: ARGITARATZEA** erabaki hau bere osotasunean, eta Xehetasun Azterketaren araudiarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Bertan adierazi beharko da Aldundiko erregistroan ale bat jasota geratu dela.

**TERCERO: PUBLICAR,** el presente acuerdo íntegramente, junto con la normativa del Estudio de Detalle, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, haciendo mención expresa de haberse producido el depósito en el registro de Diputación.

**LAUGARRENA: JAKINARAZTEA** erabaki hau Errentak eta Ordainerazpenak departamentuari.

**CUARTO: NOTIFICAR** el presente acuerdo al Departamento de Rentas y Exacciones.

**BOSGARRENA: JAKINARAZTEA** erabaki hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Tokiko Zerga Zerbitzuko Katastroko Atalera.

**QUINTO: NOTIFICAR** el presente acuerdo a la Sección de Catastro del Servicio de Tributos Locales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**SEIGARRENA:** Honako erabakia **ARGITARATZEA** Udalaren web-orrian (www.errenteria.eus).

**SEXTO**: **PUBLICAR** el presente acuerdo en la página web del Ayuntamiento (www.errenteria.eus).

**ZAZPIGARRENA**.- Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 27.1 artikuluaren arabera, berrestea lurjabe edo sustatzaileak eremuan ematen den eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzari dagokion %15aren ondoriozko kopurua, 27.500,69 eurotan kalkulatu dena, eta eraikitzeko baimenaren jakinarazpena jasotzen denetik gehienezko 15 egun balioduneko epean ordaindu beharko dena.

**SÉPTIMO**.- De conformidad con el artículo 27.1 de la Ley 2/2006, del Suelo y Urbanismo, ratificar el importe correspondiente al 15% del incremento de la edificabilidad ponderada, calculado en 27.500,69 €, que el propietario o promotor de la actuación deberá abonar en el plazo máximo de 15 días hábiles contados desde la notificación del otorgamiento de la correspondiente licencia de edificación en la parcela.

Hau da Udalbatzari informatu behar diodana, dagozkion ondorioak izan ditzan

Lo que se informa a la Corporación a los efectos oportunos.

## 7. EAJ/PNV: MOZIOA Errenteriako bizikidetza eta espazio publikoaren erabilera egokia bermatzeko ordenantzaren ingurukoa (2026IMOZ0008).

## 7. EAJ/PNV MOCION sobre la ordenanza para garantizar la convivencia y el buen uso del espacio público en Errenteria (2026IMOZ0008).

Elixabete Murua Mindeguia, EAJ-PNV udal taldeko zinegotziak, Errenteriako Udalbatzari aurkezten dio honako MOZIOA, eztabaidatu eta onartua izan dadin:

Elixabete Murua Mindeguia, del grupo municipal EAJ-PNV presenta al Pleno del Ayuntamiento de Errenteria la siguiente MOCIÓN para su debate y aprobación:

### ZIOEN AZALPENA

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Azken urteotan gero eta nabarmenagoa da Errenteriako espazio publikoaren degradazioaren inguruan herritarren artean dagoen kezka. Herriko

En los últimos años, la preocupación ciudadana por la degradación del espacio público en Errenteria se ha hecho cada vez más evidente. Paredes, farolas,

ESKU27b45c83-2410-4dfc-b52a-693d2abeb989

horma, farola, hiri-altzari eta bestelako gune publikoak maiz kartel, pankarta eta pegatinaz estaltzen dira, askotan inolako kontrolik gabe eta herritarren arteko elkarbizitza kaltetuaz.

mobiliario urbano y otros espacios públicos del municipio aparecen frecuentemente cubiertos de carteles, pancartas y pegatinas, muchas veces sin ningún tipo de control y perjudicando la convivencia entre vecinos y vecinas.

Egoera hori bereziki larria bihurtzen da Madalenak bezalako jai garaian, non herriko hainbat txoko plastikoz eta pankartez gainezka agertzen diren, herriaren irudia eta espazio publikoaren zaintza nabarmen hondatuz. Hala ere, arazoa ez da jai garaira mugatzen; urte osoan zehar mantentzen den praktika da.

Esta situación se vuelve especialmente grave durante periodos festivos como las Madalenas, cuando numerosos rincones del municipio aparecen saturados de plásticos y pancartas, deteriorando notablemente la imagen del pueblo y el cuidado del espacio público. Sin embargo, el problema no se limita a las fiestas; es una práctica que se mantiene durante todo el año.

Errenteriak, gaur egun, ez du bizikidetza edo ordenantza zibikorik. Aurreko legealdian, udal gobernuak berak herritarren iritzia jasotzeko parte-hartze prozesu bat abiatu zuen, halako araudi baten beharra bazegoen aztertzeko. Prozesu hartan ondorio argia izan zen: herritarrek “Bizikidetza Ordenantza” baten beharra ikusten zutela.

Actualmente, Errenteria no dispone de una ordenanza de convivencia o una ordenanza cívica. En la anterior legislatura, el propio gobierno municipal impulsó un proceso participativo para conocer si la ciudadanía consideraba necesaria una regulación de este tipo. La conclusión de dicho proceso fue clara: la ciudadanía veía necesaria una “Ordenanza de Convivencia”.

Horren ondorioz, 2023-2027 Agintaldi Planean honako konpromisoa jaso zen espresuki: *“Bizikidetzaren inguruko ordenantza edo herri-hitzarmena lantzea / Elaborar una ordenanza de convivencia o un gran pacto social que mejore las bases para la convivencia”.*

Como consecuencia de ello, el Plan de Mandato 2023-2027 recogió expresamente el siguiente compromiso: *“Bizikidetzaren inguruko ordenantza edo herri-hitzarmena lantzea / Elaborar una ordenanza de convivencia o un gran pacto social que mejore las bases para la convivencia”.*

Gainera, dokumentu berean jasotzen da neurri hori 2026rako garatuta egon behar dela. Hala ere, gaur gaurkoz ez dago ez zirriborrorik, ez proposamen publikorik, ezta udal gobernuaren benetako borondate politikoaren arrastorik ere.

Además, en el mismo documento se establece que esta medida debía estar desarrollada para el año 2026. Sin embargo, a día de hoy no existe ni un borrador, ni una propuesta pública, ni señales de una verdadera voluntad política por parte del gobierno municipal.

EAJ-PNVren ustez, ezinbestekoa da espazio publikoaren erabilera arduratsua eta herritarren adierazpen askatasuna uztartuko dituen araudi argi bat garatzea, inguruko udalerri askotan egiten den moduan.

EAJ-PNV considera imprescindible desarrollar una normativa clara que compatibilice el uso responsable del espacio público con la libertad de expresión de la ciudadanía, tal y como ya sucede en numerosos municipios del entorno.

ESKU27b45c83-2410-4dfc-b52a-693d2abeb989

Horregatik guztiagatik, EAJ-PNV udal taldeak aurkezten ditu:

**ERABAKI PROPOSAMENAK**

1. Errenteriako Udalak aitortzea beharrezkoa dela **Bizikidetza Ordenantza edo ordenantza zibiko bat garatzea**, herriko espazio publikoaren erabilera egokia, garbitasuna, ondare publikoaren babesa eta herritarren arteko bizikidetza bermatzeko, inguruko udalerrietan dagoen bezala.

2. Errenteriako Udalak adierazpen askatasuna bermatzeko konpromisoa berrestea, baina, aldi berean, **herrian kartel eta pankartak jartzeko panel eta gune espezifiko berriak ezartzea**, modu ordenatuan eta arautuan erabil daitezen.

